

AURKEZPENA

Sistema kapitalista ziklo berri batean murgildu da azken hamarkadetan, kapitalaren balioztatzeak ekonomiaren nazioartekotasuna eskatu baitu orain arte hori ezagutu ez bada ere.

Zentzu honetan, nazioartekotasunari buruzko ikuspegi anitzak eta eztabaida sakona egon arren, badago nolabaiteko adostasuna ere gaur egun globalizazio ekonomikoaren norabidearen presentziaz. Horren ezaugarriak guztiz berriak dira aurreko hamarkadetakoeekin alderatuz gero.

Horrela, sistema ekonomikoaren ezaugarria da gaur egun eskala anitzeko ezarpena, non toki, nazio, eskualde edo nazioz gaindiko dimentsioak gero eta gehiago teilakatzen diren; azken horrek, gainera, pisu oso garrantzitsua hartu du.

Ekonomia globalaren gaur egungo ezaugarriak, bai Estatu mailan bai eta Estatuz gaindiko mailan ere pasa den mendeko laurogeigarren hamarkadan hasi zen; eta merkatu eta finantza eremuen moduko arauketa-ezaren eta liberalizazioaren zenbait politika publikoen ondorioz eratu dira neurri handi batean. Era berean, bai enpresek eta bere antolakuntzek, bai eta sindikatuek ere paper garrantzitsua izan dute eta dute horretan. Korporazio handiek ezartze-lurraldeak eta lanaren faktorea hautatzen dituzte. Horrek gizarte eskubideen degradazioa dakar, enplegu eskaintza txikia dela eta, lurralde hartzailearen segurtasun juridiko eta ekonomiko eza dela, eta estatuen artean inbertsioak erakartzeko dagoen lehiagatik. Politika horiek estatu aberats/estatu txiro erlazioetan jokatzear gain, Estatu txiroen artean ere jokatzen dute, horietan lan baldintzek ez baitute lortzen nazioarteko erakundeek ezarritako minimoak.

Lan Harremanak aldizkariaren monografia honetako artikuluek, aztertzen dute aldi berri honetako kapitalismo zein globalizazio ekonomikoaren testuinguruan, nazioarteko erakundeen, erakunde publikoen, enpresa eta bere elkarrekin, eta sindikatuen jarrerak eta ekimenak.

Amparo Merino, Óscar Contreras eta Patricia Espejoren artikulua nazioarteko sindikalismoa hasieratik nola eratu zen aztertzen du, bai eta azken hamar-

kadetan sindikatu mugimenduak ekonomia- eta enpresa-testuinguru berrira egokitzeko jasan dituen eraldatzeak eta birrantolatzeak ere. Era berean, gaur egun sindikatuak dituzten erronkak azpimarratzen dira, globalizazio zuzenago eta inklusiboago bat lortzeko, indarrean dagoen gobernantza-globala sistemaren ahultasun eta estatuz gaindiko justizia ekonomiko gabeko testuinguru batean.

Bestetik, Pablo López Callek eta Rafael Ibáñezek azken hamarkadetan espainiar eredu produktiboa nola itxuratu den aztertzen dute, bai eta, gaur egungo krisi ekonomiko eta epe ertaineko etorkizuneko testuinguruan, horrek dituen ondorioak. Eredu produktibo horrek eredu metatzaile fordista-keynesiarraren hedatze fasean gure ekonomiak bete duen europar mendebaldeko leku semiperiferikoa hartzen du aintzat. Analisia software industria aztertuz egiten da, informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren alorra aspalditik kapitalismoaren garapenerako ereduaren gaztetze promesen antzezle nagusia izan da eta.

Era berean, Luis Enrique Alonsok eta Carlos FernándezRodríguezek euren artikuluan, antolaketa eta enpresa munduan hedatu den kudeaketaren diskurtsoa edo management delakoa aztertzen dute. Horrek ideologia hegemonikoa ordezkatzear gain, enpresa erakundeetan boterea duten ohiko praktikak eta botere egoera ere legitimatzen ditu. Boltanski eta Chiapello moduko zenbait autoreek «kapitalismoaren izpiritu berria» gisa definitu duten ideologi eta diskurtsoek, adierazten dute gaur egun enpresarengan, gizarterengan eta banakoengan gailentzen diren balio moralak.

María del Mar Maira Vidalek aztertzen duena da, azken hamarkadetan Europar Batasuneko estatu askok eta nazioarteko erakundeek, proiektu politiko eta ekonomiko neoliberal gisa, beren gain hartu duten Enpresaren Gizarte-Erantzukizuna. Autorearen iritziz enpresek egin beharreko gizarte-politika arduratsuak, estatu zein estatuz gaindiko, giza-, lan- eta ingurumen-eskubideak gehiago ez arautzea bilatzen dute.

Patricia Espejo Megíasek europar enpresa komiteak ditu aztergai, dimentsio globaleko enpresetako langile-ordezkaritza aintzat hartuz. Organo hauek, izaera unitarioa eta berezko profilak dituztenak, nazioartean sindikatu-ekintzarekin lotutako zeregin berriak hartu dituzte denboran zehar. Europar nazioarteko instituzioek Europar Enpresa Komite bat berretsi dute europar Zuzentarau baten bidez, horrekin langileak informatzeko eta langileengandik aholkuak jasotzeko mekanismoak bateratuz. Europar Enpresa Komite horrek eredu adierazten du gizarte-elkarte eta beste indar-ordezkatzaileek, nazioarteko-enpresa jarduera, gune guztietan, kontrolatzeko helburua bultzatzen duten nazioz-gaindiko ekintzak.

Azkenik, Guacimara Gil Sánchezek nazioarteko zenbait erakundek egindako dokumentuen bidez aztertzen du, Europar Batasunak jenero berdintasunarekiko eta justiziarekiko duen sentiberatasuna. Dokumentu horietan enpresa gizarterantzukizuna definitzen da, bai eta giza-eskubideen eremuan konpainientzat

gida gisa balio duten araudi markoaren erreferentziak. Autorearen ondorioa da jeneroaren ikuspegia ez dela modu egokian gauzatzen baliabide horietan. Gainera, baliabide horien ahultasuna eta zehaztasun eza dela eta, ez dute baliorik jenero berdintasunaren eskubideen babeserako.

Irakurlea ohartuko denez, talde lan honek, zeharkako eran, aurre egiten dio, paradigma-produktiboaren aldaketak bultzatutako eraldatzeari, eta bizitza- eta lan-baldintza gero eta heterogeneago, sakabanatuago eta egongaitzagoak dakarten deszentralizazio, deskokatzeko, berkokatzeko eta kanporatze prozesuei. Beraz, premiazkoa da gogoeta egitea gizarte erakundeen eta horien helburuen errealitateari buruz eta erronka berrietara egokitzeari buruz. Erronka berri hauek malgutasuna eskatzen dute errealitate gero eta konplexuago, disfuntzionalago eta pluralago baten aurrean eta, dudarik gabe, finantza, ondasun eta zerbitzuen merkatu hegemoniaren aurrean, hau guztia botere-, gizarte- eta erakunde-erlazioen lurralde-gune zabal batean izanik.

Eta gogoeta da hain zuzen ere gaur atsegin handiz aurkezten dugun obra hau osatzen duten artikuluen xedea. Horiez gain, Atal Irekian Mikel Urrutikoetxeak, Gontzal Agirianok, BatirtzeDíezek eta Edurne Lópezek lan arriskuen prebentzioko teknikarien erantzukizunei, langileek berreskuratutako enpresei, pensioen sistema publikoaren zuzentasun ezari eta enpresa txiki eta ertainetan aplikatzen den lan arriskuen prebentzioaren araudiari buruz idatzitako beste lau artikuluko agertzen dira.

MARÍA DEL MAR MAIRA VIDAL
AMPARO MERINO SEGOVIA